

# txintxarri



## Denok elkarrekin ospatzeko

Aterpeak herriko eragileei eskerrak eman, eta 25. urteurreneko egitaraua aurkeztu du /6-9

TXINTXARRI

## Txokoak, udalbatzarrean

EH Bilduren ekonomia soziala aplikatzeko proposamena atzera bota dute /2

Landaberri Ikastolan hondakinen kudeaketari buruzko eztabaida publiko jendetsua egin dute /5

Saskibaloiko Ostadarrek Lauko Finalerako txartela eskuratu dezake igande honetan /10

ELEKTRIZITATEA/  
ELEKTRONIKA

MANTENTZE-LANAK/  
ENERGIA

ADMINISTRAZIOA

FABRIKAZIO  
MEKANIKOA



**USURBILGO  
LANBIDE  
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

### ATE IREKIAK!

[www.lhusurbil.eus](http://www.lhusurbil.eus)

Goi eta Erdi Mailako  
ZIKLOAK

Lanerako Prestakuntza  
IKASTAROAK

Berrikuntza  
PROIEKTUAK

...

Maiatzak 12 eta 19, 11:00etan  
Maiatzak 16, 18:00etan

### MAIATZA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDA
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

2018



# Ekonomia sozialaren politika aplikatzeari uko

Udako Txokoak adibide hartuta, udal kontratuetan ekonomia sozialaren irizpideak aplikatzeko eskaera egin du EH Bilduk, baina udalbatzar taldearen babesik jaso ez, eta bertan behera geratu da mozioa. Pentsionisten eskaera aho batez babestu dute

## Maddi Noriega

Udalaren kontratazioetan dirua herritarrei ematen zaien zerbitzuaren kalitateari gailentzen zaiola salatu du Lasarte-Oriako EH Bilduk astearteko udalbatzarrean. Horren adibide gisa jarri dute Udako Txokoen gaia. Dirudienez, diru etekina lortzeko asmoa duen "enpresa multinazional" baten esku geratuko dira txokoak, horiek eskaintza ekonomiko merkeagoa egin baitute. Horren aurrean, gizartearen beharrianak lehenetsiko dituen ekonomia sozialaren irizpideak jarraitzeko eskaera egin die udal gobernu taldeko alderdiei. Hemendik aurrerako udal kontratazioetan balorazio ekonomikoari %30eko pisua ematea proposatu du EH Bilduk.

Proposamenak, ordea, ez du udaleko alderdien babesik jaso. Ahal du Lasarte-Oria Pudedeko (ADLOP) Arkaitz Naya txokoekin gertatu denarekin "penatuta" agertu da, horrek Lasarte-Oria ondorio "negatiboak" izango dituelako. EH Bilduk proposatutako balorazio kopurua aztertu egin behar dela argudiatuta abstenitu egin da.

EAJk eta PSE-EEK, berriz, mozioaren aurka egin dute. Azken horrek azaldu du azken lizitazioak udaleko kontratazio guztiak Udako Txokoek izan duten balorazio berbera izan dutela. Ez dira bat etorri alderdi ekonomikoari %30eko balioa ematearekin. "Horrela egingo balitz, adituen mahaia osatu beharko genuke, eta horrek lan gehiago eskatuko luke prozesuan". Babesik jaso gabe, mozioa bertan behera geratu da.

Lasarte-Oriako arau subsidiarioetan A.33 Teresategi eremuari eta Donostiako AÑ.10 Errekalde eremuari Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrari dagokionez, bi



Pentsionista ugari bildu dira astearteko udalbatzarrean. TXINTXARRI

udalerrriak bateragarri egiteko plana tramitatzeko hitzarmenaren onarpena eztabaidatu dute. EH Bildurentzat "deigarria" da hitzarmenaren tramitazioa. Teresategin Leroy Merlin eraikiko dute, eta horrek "ez die herritarren beharrei erantzuten". PSE-EEK, berriz, Teresategiko proiektuak lanpostuak sortuko dituela oroitarazi du. "Bertara iristeko herritarrei erraztasunak emateko beharri erantzuten dio hitzarmenak". PSE-EEren eta EAJren aldeko bozekin aurrera egin du gaiak.

## Autoentzat aparkalekuak

Aparkamenduen inguruko parte hartze prozesu eskaera luzatu du EH Bilduk. Udal gobernuak bi urtetan gaia lantzeko prozesurik egin ez duela azaldu du. Gainera, salatu du zerbitzuetako batzordean bi alderdiek adostutako akordioa (diru sorta bat gordeko zela parte hartze prozesua egiteko) ez dutela bete.

PSE-EEK, berriz, udal teknikariek egindako azterketan aparkalekuen "superabita" dagoela ebatzi du, eta horregatik bozkatu dute aurka. EAJk eta ADLOPek, berriz, babestu egin dute EH Bilduren mozioa, eta

bederatzi botorekin aurrera egin du.

Pentsiodunen gaiak ere izan du hizketarako tartea asteartean. Izan ere, Lasarte-Oriako Pentsionisten Koordinakundeak mozio bat eraman du estatuko koordinakundeak egindako aldarrikapenaren alde, eta aho batez onartu dute.

Familientzako eskola materiala erosteko diru laguntzen oinarriak ere aho batez onartu dituzte, eta A.36 Zatarain eremuan kaleak izendatzeko proposamenak ere aurrera egin du, PSE-EEren, EAJren eta ADLOP-en babesarekin. EH Bilduk abstenitu egin da.

Herrian enpresa txikiak sortzen laguntzeko diru laguntzak emateko oinarriari ere alderdi guztiak eman diete babesa, baita udaleko langileen lan baldintzen marko arautzailearen aldaketari ere.

Zerga ordaintzeari ihes egin dioten iruzurgileen kasuak argitara atera dituen Herve Falcianiren estradizioaren aurka mozio bat ekarri du ADLOPek, baina EH Bilduren babesa besterik ez du izan; hortaz, ez du aurrera egin. PSE-EEK, ordea, emendakin alternatiboa jarri du mahai gainean, eta EAJren babesarekin onartu dute.

## Elektrizitatearen kontsumoaren datuak ezagutzeko ikastaroa

Maiatzaren 17an emango dute, eta kontsumoa murrizteko eta eraginkortasuna handitzeko baliagarria izango da

### Txintxarri

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetarako Departamentuak Gipuzkoa Argitu programaren barruan antolatu du ikastaroa. Elektrizitate-kontsumoaren inguruko datuak ezagutzeko aukera izango dute herritarrek. Horrela, Gipuzkoako sektore ezberdinen (etxebizitzak, merkataritza, enpresa txikiak, etab.) energiaren kontsumoaren murrizketa lortzeko eta eraginkortasuna handitzeko

erabakiak hartzeko baliagarria izango da ikastaroa.

Bertan parte hartzeko izen ematea beharrezkoa da, maiatzaren 15a baino lehen. Horretarako, [edurne@izadi21.eus](mailto:edurne@izadi21.eus) helbidera mezu bat idatzi daiteke, edota 628-532-303 telefonora deitu.

Ikastaroa maiatzaren 17an egingo da, Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan.

Informazio gehiagorako, [www.gipuzkoaingurumena.eus/eu/argitu](http://www.gipuzkoaingurumena.eus/eu/argitu) web orrialdea kontsultatu ahal izango dute interesatuek.

## Ospitalerako autobusa linea kentzeko arriskua

Foru Aldundiak ahoz baieztatu dio Usurbilgo Udalari ospitalerako autobus linea kendu egingo dutela. Autobus zerbitzu hori Lasarte-Oriatik ere igarotzen da, baina momentura arte, ez dute xehetasun gehiagorik eman, eta ezin daiteke jakin zein eragin izango duen horrek herrian.

Murrizketarik ez plataformak "ozenki" salatu du aldundiaren baieztapena: "Zerbitzu horiek indartu egingo dituztela saltzen ari dira".

Herritarren iritzia "kontuan hartu gabe" hartu dutela salatu dute. "Inposizio bidez hartzen ari dira erabakiak".

Horren aurrean "kezkaturata" agertu dira laster argitaratuko duten kontzesioaren aurreproiektuarekin, eta bertan behera uzteko eskatu dute.

## 2019an fikziozko pertsonaiez mozorrotuko da Lasarte-Oria

Herritarrek proposamenak egiteko aukera izan dute, eta horien artean aukeratutakoa izan da pertsonaia

### Txintxarri

2019ko Inauterietako gaia aukeratzeko parte hartze prozesuaren epea amaitu da dagoeneko, eta gaia ere aukeratu dute. Fikziozko pertsonaiez mozorrotzeko aukera izango dute lasarteoriatarrek datorren otsailean.

Herritarrek eta konpartsek proposatutako gaiak aztertu ondoren, datorren urterako gai nagusitzat fikziozko pertsonaia hautatzea erabaki dute. Gai horrek mahai gainean

jarritako ideietako asko biltzen ditu udalaren arabera.

### Jasota gai proposamenak

Herritarrek proposatutako gai guztiak aztertu eta landu ostean, hauek nabarmendu ditu udalak: zientzia-fikzioa, zirkuaren mundua, zinemako pertsonaia, marrakki bizidunak eta musika-taldea.

Hemendik aurrera, beraz, lasarteoriatarrek mozorroak pentsatzen eta egiten hasi beharko dute datorren urteko mozorro festan parte hartzeko.





Sare Herritarraren kideak, Urnietan egin zuten prentsaurrekoan. TXINTXARRI

# Herritarrak aktibatzeneko dinamikak Buruntzaldean

Herritarren Sareak hainbat ekintza antolatu ditu eskualdean datozen asteetan, "herritarrak aktibatzeneko". Presoen urrunketaren aurka eta haien eskubideen alde lan egiten du taldeak. Lehen ekitaldia Lasarte-Oria izango da, gaur, ostiralean, bertan

## Txintxarri

ETAk azken agiria kaleratu zuen joan den astean, bere ibilbidea amaitutzat emateko. Halere, oraindik lan asko dago egiteko, gatazkaren ondorioak konpontzeko baitaude. Euskal presoaren gaia da horietako bat; etxetik urrun daude asko eta asko, eta ez dira haien eskubideak errespetatzen. Lau urte dira Sare sortu zela, hain zuzen eskubide horiek defendatzeko helburuz. Horretarako, "herritarren aktibazioan" sinesten du taldeak. Hainbat ekitaldi prestatu dituzte datozen asteetarako, presoaren errealitatea ezagutarazteko.

Lasarte-Oria izango da lehena, gaur bertan, ostiralean, Okendo plazan, 19:00etan. Errezitaldi kulturala egingo dute, herriko presoaren egoeraren berri emateko. Egun lau lasarteoriatar daude kartzelan, denak Euskal Herriatik urrun.

Hurrengo egunean, larunbatean, Hernanin egingo

dute ekitaldia, gaztetxoekin, hain zuzen, motxiladun haurrekin.

## Motxiladun haurrak

Espetxe politikaren eraginez gurasoren bat, edo biak, urruneko kartzela batean dituzten haurrak dira horiek. Ikastetxeekin elkarlanean

eginiko egitasmoa da. Porrotz pailazoarekin margotze saioa egingo dute. Lasarte-Oriako bi haur daude egun egoera horretan.

Eskualdeko herritarrek batera egingo dute hurrengo asteko ekimena. Lau herrien arteko gune batean bilduko dira, Santa Barbaran. Lasarte-Oriatik 10:30ean aterako dira, eliza ondok. Hurrengo ekitaldiak gainerako herrietan egingo dituzte. Esaterako, Joseba Azkarragak hitzaldia emango du hilaren 24an, Urnietan. Andoain eta Usurbilen Sare herritarraren aurkezpena egingo dute, baina data ez dute oraindik finkatu.

Urnietan egin dute prentsaurrekoa eskualdeko Sare Herritarrak, ekitaldi horien berri emateko. Urruntze politikaren amaiera, eta gaixo dauden presoaren kaleratzea eskatu dute, besteak beste. "Askotariko ahotsek eta pentsaerek" osatzen dute elkarteak.

## Egitaraua

**Maiatzaren 11**  
- **Lasarte-Oria**  
• **19:00** Errezitaldi kulturala, Okendo plazan.

**Maiatzaren 12a**  
- **Hernani**  
Motxiladun haurrekin margoketa.

**Maiatzaren 20a**  
• **10:30** Santa Barbarara irteera.



NEURE KABUZ

MIKEL YARZA

## Memoria eta ondarea

Gerra oro bi aldiz borrokatzen da, gudu-zelaian lehenik, oroitzen ostera. Jatorri vietnandarreko Viet Thanh Nguyen idazle estatubatuarrena da esaldia, baina mundu zabalean aplika genezake. Gurean, ETArekin behin betiko amaierak erreakzio soka luzea ekarri du eta Kanbon, Bertzen zein Madrilan, ordezkari politikoek ez dute aukera galdu euren mezuak gizarteratzeko. Agintarien aldarriek baino arreta gehiago merezi dute, ordea, bozgorailuak eskura ez dituzten biktimek.

Askotarikoak dira biktimek, hildakoez gain, baita euren alboan hamaika modutara sufritu ostean bizirik jarraitzen dutenak ere. Euren istorioak ezagutu eta partekatzea da iraganaren irakurketa integrala jorratu eta gizarte osasuntsu bat eraikitzen jarraitzeko bidea. Azken batean, jende andanak bere larrutan sufritu du hamarkada luzez, baina gazte askok zorigaitzoko azken astinduak besterik ez ditugu ezagutu eta etorriko direnek urruneko historiatzat jo lezakete kontu berbera.

Begirada atzera botaz gero, are urrutiago geratzen zaizkigu diktadura garaiko basakeriak, epaituak ez izateaz gain, oraindik ere Espainiako estatuko eragile instituzional nagusien gaitzespenik jaso ez dutenak. Zer gertatuko da sufrimendurik lazarriena pairatu zutenek mundu honi agur esatean? Nork eta nola emango digu gure iraganaren berri? Ez gaitzen zauriak sendatzen ahalegindu ordez alfonbrapean ezkututzen tematu, ez dezagun akats berbera berriz ere errepikatu. Egia da gure ondorengoei zor diegun gutxienekoa.

## Komertzio txikien alde

Komertzio txikiak bizitza ematen diote Lasarte-Oriari. Herriaren bihotz eta motorretako bat dira, zalantzarik gabe. Merkataritza txikiaren garrantzia azpimarratu du Lasarte-Oriako Talde Aktibistak, larunbat goizeko kale antzerkiarekin; bezeroei eskerrak eman dizkiete, herriko dendetan erosteagatik. Sartu dira dendetara, banatu dituzte eskuorriak dendari eta bezeroen artean, eman dizkiete eskerrak, eta hurrengo komertziora.



TXINTXARRI



**NOAOA**  
BIDAIAK

**CADIZ EZAGUTUZ**  
MAIATZAN 8 EGUN ETA URRIAN 10 EGUN

WWW.NOAOA.EUS

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria





Eguraldi aparta lagun, hainbat herritar igo ziren Azkortera igande goizean. TXINTXARRI

# Txiki geratu da Azkorteko ermita

Eguraldi ezin hobia lagun, hainbat herritar igo dira Azkortera, maiatzeko aurreneko igandeko erromeriaz gozatzera. Meza, dantza, musika, herri-kirolak, hamaiketakoa...ez da ezer falta izan. Egitarau erakargarria osatu du Ttakun KEk; txiki geratu da ermita

## Iñigo Gonzalez AZKORTE

Ohetik altxa, pertsiana igo, leihotik begiratu, eta hara: eguraldi paregabea. Hainbat plan egiteko aukera ezin aproposagoa. Esaterako, mendira joateko. Hala egin dute hainbat lasarteoriatarrek asteburuan: maiatzeko aurreneko igandeko erromeriaz gozatzera joan ziren Azkorteko ermitara. Gehienak oinez, botak jantzi eta makilak eskuetan. Adineko pertsona ugari ere igo ziren, autobusez. Txiki geratu zen Azkorte.

Santa Krutz eguna maiatzaren 3an izan zen, baina herritarrek igandean, hilaren 6an, ospatu zuten. Ttakun Kultur Elkarteak egitarau erakargarria prestatu zuen: meza, dantza, musika, hamaiketako goxoa eta herri-kirolak. Kombinazio ezin aproposagoa, igande goizerako.

Fededunek ermita bete zuten, meza entzuteko. Ondoren, hamaiketakoa egitera atera ziren: Ttakun KEren postuan sagardo freskoa, txorizo eta haragi egosi

pintxoak, txokolatea...ez zen ezer falta. Biyak Bat adinekoen egoitzako kideek ere jarri zuten postu bat: patata tortilla ogitartekoak eta freskagarriak banatu zituzten.

Lasarte-Oria eta Urnietako Udalek erromeria bere gain hartu aurretik, herritar talde bat arduratzen zen festa antolatzeaz. Oraindik ere elkartzen dira hamaiketakoa egiteko, ermita barruan. Ttakun KEko lehendakari izandako Sebastian Kerejeta buru, bost pertsona eseri ziren mahaiaren bueltan, mokadu bat jatera. Anekdotak eta istorioak gogoratzeko ere baliatzen dute tarte hori. Kontatu zuten askoz jende gehiago biltzen zela garai batean: 1973. urtean,

**MUGERTZA ANAIEK, IZETA IV.AK ETA MIKEL LOPETEGIK KIROL ERAKUSTALDI EDERRA EMAN DUTE**

esaterako, 22 elkartu ziren. Aurten, bost. Denboraren joana.

## Herri kirolak

Ugaitz eta Aratz Mugertza anaiek, Izeta IV.ak eta Mikel Lopetegi Urrak kirol erakustaldi ederra eman dute. Euren arteko erronka izan da erromeriako ekitaldi nagusia. Aizkorarekin trebeak direla frogatu dute Mugertza anaiek; Izetak eta Urrak, berriz, hainbat kilo eta formatako harriak altxa dituzte. Dema deigarriena azkenekoa izan da: aizkolari eta harrijasotzaile gazteenak, zaharrenen aurka. Aurrena, ehun kiloko bola bost aldiz altxa behar izan dute. Ondoren, hainbat enbor moztu. Eta, bukatzeko, zerra hartu eta trontza moztera. Zaharrenek abantailarekin hasi dute erronkaren azken froga hori, eta gazteenek ezin izan dituzte harrapatu. Bukatzean, berriro, dantza eta musika.



TXINTXARRI

## Paperean idatzitako istorioak

Marraskilari, idazle eta poetek, behin betiko marrazki, liburu eta poesiak plazaratu baino lehen, hamaika zirriborro eta istorio eramaten dituzte paperera. Mahai gainean geratzen dira horietako asko, zortea baldin badaukate; zaborrontzira joaten dira beste asko, zimurtuta, tolestuta. Paperezko istorioak dira. Kontakizun horiek oholza gainera eramaten ditu Mons Dansa konpainiak, *Wabi Sabi* ikuskizunean. Etxeko txikienek primeran pasa dute antzerkiarekin, larunbat arratsaldean, Manuel Lekuona kultur etxean.

Paperetik sortzen diren istorioak topatzeko ideia abiapuntutzat hartu, eta hainbat euskarri erabilia (dantza, bideoak, magia eta umorea), oraindik "amaitu gabe" dauden bi pertsonaiaren istorioa kontatzen du ikuskizunak. Ez dira perfektuak, ez dira behin betiko lan horretan azalduko diren pertsona idealak, baina lortu dute paper horretatik, ahanzturatik ihes egitea. Lurrean botata edota paperontzian topatzen dituzte istorioak jasotzen dituzte orain, haiekin jolastu eta bizitza berri bat emateko.

## Oroimena bizirik mantentzeko urtekaria kaleratu dute

Herriko elkarten jarduera biltzen du 'Sustraiak eta Hegoak' urtekariak. Bigarren bezala argitaratu dute

### Txintxarri

Lasarte-Oriako kultur ondarea gordetzeko asmoz, elkarten urtekaria argitaratu zuten iragan urtean Danok Kide elkarteak eta udalak. Etorkizunean herriaren historia eskuragarri izateko asmoz, Sustraiak eta Hegoak liburuxkaren bigarren zenbakia kaleratu berri dute.

Elkarten jardueraren berri ematea "erabilgarria" izatea nahi du udalak. "Zabaltzen duen informazioak balio dezala herri batek bere oroimena bizirik mantentzeko", azaldu du Jesus Zaballos alkateak.

39 elkarteren parte hartzea jaso du aurtengo urtekariak, eta guzti horien ekarpenari esker Lasarte-Oria "aberatsagoa, hobia eta biziagoa" egiten dela nabarmendu dute.

Elkarte sare aberatsa Lasarte-Oriako bereizgarri dela ere ekarri



Urtekaria. TXINTXARRI

du gogora Jesus Mari Egizabal Danok Kide elkarteak: "Sare horrek bere inguruan sortzen duen jardueraren erakusgarri da urtekaria". Horrekin batera, urtekarian parte hartu duten elkarteei eskerrak eman dizkio.



# Landaberri Ikastolatik Gipuzkoa osora

Ehundik gora parte hartu dute Hitzartuk antolatutako Gune Irekian. Hondakinen kudeaketa izan dute hizpide, erraustegiaren obretatik 500 metro eskasera dagoen Landaberri Ikastolan. Hainbat gairen inguruan hausnartu dute, ideia argi batekin: ez da beranduegi hitz egiteko

## Iñigo Gonzalez

Aitzindari diren ekintza eta proiektuen inguruan beti sor daitezke zalantzak: animatuko al da jendea? Erantzungo ote diote herritarrek hondakinen kudeaketari buruz era lasai eta aktiboan hausnartzeko deia? Hitzartu ekimenaren sustatzaileak egon daitezke lasai: bikain erantzun dute Lasarte-Oria, Zubieta, Usurbil eta inguruko herrietako biztanleek, eta Landaberri Ikastolako gimnasioa bete dute. *Gure bizitzaren kontrolaren bila: nola lortu informatzeko, eztabaidatzeko eta parte hartzeko eskubidea bermatzea?* lelopean, hondakinen kudeaketaren gaiari buruz hausnartu dute Gune Irekian parte hartu duten ehundik gora pertsonak. "Parte-hartzaileen jarrera oso aktiboa izan da; nabaritzen da gai honi buruz hitz egiteko duten gogoa", nabarmendu dute antolatzaileak. Gipuzkoan lehenengo aldiz egin da horrelako egitasmo bat. Landaberri Ikastola hartu dute abiapuntu, Gipuzkoa osora zabaltzeko gero.

Goizean goiz hasi dira antolatzaileak dena prestatzen. 10:30ean egin diete harrera Lasarte-Oriako eta inguruko herritarrei. Agenda prestatzeari ekin diote gero, denek batera. Ideien merkatu moduko bat egin dute, buruan zeuzkaten ideia eta galderak paperera eramanez: "Nola ulertarazi gizarteari hondakinen arazoa guk sortzen dugula, eta guk eman behar diogula irtenbidea?"; "nola landu hondakinen gaia, hezkuntzatik?"; "politikariek zergatik ez dituzte entzuten gure ardurak eta kezak?". Horiek izan dira planteatutako galderak, besteak beste. Galdera eta gai horiek hartu dituzte eztabaidagaitzat, eta hainbat taldetan banatu dira, lasai eta gustura hausnartzeko: *Igeldo, Andatza, Lasarte, Zubieta, Santuenea, Oria, Usurbil eta Buruntza*. Helduak izan dira



Ehundik gora herritarrek hartu dute parte Landaberri Ikastolako Gune Irekian. TXINTXARRI

## "HERRITARREN ARTEKO KOMUNIKAZIO ARIKETA PAREGABEA IZAN DA"

gehiengoa, baina haurrek ere osatu dute eztabaida talde bat; hitz egindakoak paperean jaso, eta gimnasioko paretetako batean eskegi dute gero. Gauza bera egin dute gainontzeko taldeek ere. Bien bitartean, Bea Egizabal eta Cesar Marcos ipuin kontalariekin primeran pasa dute etxeko txikienek. Anfiteatroa hurbiltzean, paella usain goxoa frontoitik: goiz osoan zehar hitz egiten egon eta gero, frontoian berriro dituzte indarrak parte hartzaileak, giro ederrean.

### Etorkizunari begira

Eztabaida eta gogoetek arratsaldean segitu dute, ia bostak arte. Egun osoan zehar hitz egindakoak aktetan jaso dituzte antolatzaileak. Jakinarazi dute datozen egunetan e-postaz bidaliko dizkietela parte hartzaile guztiei. Etorkizunean egin daitezkeen

ekimenei buruz ere hitz egin dute, eta proposamen ugari jaso dituzte; 40 inguru. Ekitaldia biribiltze aldera, bukaerako festa ospatu dute guztiek, gimnasioan bertan. Musika eta dantza izan dira protagonistak. Hori baino lehen, Landaberri Ikastolako irakasletako batek hartu du hitza; eskerrak eman dizkie sustatzaileei, Gune Irekia bertan egiteagatik. Ikastolak balio sinbolikoa dauka, erraustegia egiteko lanak 500 metro eskasera baitaude.

Gune Irekia baloratu dute Hitzartuko kideak. "Gauza asko ikasi ditugu gaur, herritarren arteko komunikazio ariketa paregabea izan da. Parte hartu duten gehienak are ilusionatuago atera dira, eta lan egiteko gogo askorekin. Ideia bat geratu zaigu argi: ez da beranduegi gai honi heltzeko". Maiatzaren 14an, astelehenarekin, bilera bat egingo dute Manuel Lekuona kultur etxean, 18:00etan. Gune Irekiaren balorazioak jaso nahi dituzte. Era berean, datozen asteetan balorazio publiko bat egingo dute, esperientzia honetatik ateratako ondorioekin eta jaso dituzten ideia guztiekin.

## Kultura politiko sendo bat eraiki nahi du Foru Aldundiak

'Gipuzkoarron Kultura Politiko, 2017' txostena aurkeztuko dute martxoaren 14an, astelehenean

### Txintxarri

Gipuzkoako Foru Aldundiako Bizikidetzak eta Giza Eskubideetako zuzendaritzak gipuzkoarren kultura politikoari buruzko ikerketa egin zuen 2017. urtean.

Foru Aldundiak abenduan eman zituen jakitera *Gipuzkoarron Kultura Politiko, 2017* txostenaren datuak. Orain, ordea, aldundiko ordezkariak herriz herri joango dira emaitzak tokiko hautetsiei, talde politikoei, garapen agentziei eta komunikabideei aurkezteko.

Era berean, kultura politiko demokratikoa garatzeko iradokizunak, iritziak eta hausnarketak jasoko dituzte.

Hurrengo astelehenean, maiatzaren 14an, Lasarte-Orian izango da ekimena. Hitzordua, arratsaldeko 18:00etan Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan.

Bertan izango da Markel Olano ahaldu nagusia datuak azaltzen, baita Lasarte-Oriako alkate Jesus Zaballos ere.

### Ikerketako datuak

2017 urteko ekain eta uztailean, Gipuzkoako gizarteak politikarekiko duen harremana, gizarterekiko eta politikarienganako duen konfiantza maila eta eredu demokratikoari buruzko iritzia azertu zuen Foru Aldundiak, Aztiker Soziologia Ikerguneren bitartez. Guztira 1.496 gipuzkoarrei elkarrizketa egin

die. 16 urte gorako herritarrek aukeratu dira eta eskualdeen arteko banaketa orekatua bermatu da.

Emaitzei dagokionez, politikagintzarekiko desaxikimendua agertzen dute gipuzkoarrek. Baina politikan interesa izan eta honek haien bizitzan eragiten duela onartu dute askok. Soilik galdetutakoan %15ak agertzen du erabateko interes falta gaiarekiko.

Gai sozial eta politikoei buruzko ardurak bat egiten du inkestakuek demokrazian sakontzeko erakutsi duten nahiarekin, gainera. Partaidetza handiago eskatzen dute. Hain zuzen, aldundiaren aburuz hori izan daiteke politikarekiko uste negatiboa aldatzeko gakoetako bat.

Funtzionamendu demokratikoari buruzko iritziaz ere galdetu zaie, eta emaitza esanguratsuak utzi ditu ikerlanak. Orokorrean, Euskadikoaz galdetzerakoan *asebetetasun maila*, Espainiakoarekin konparatu, askoz ere altuagoa da. Gehiengoa aldiz, Espainiakoarekin ez dago konforme eta hamar pertsonatik zazpi oso kritikoak dira Espainiako demokraziarekin.

Azkenik, galdetegian erabakitzeke eskubideari eta Euskal Estatuari buruzko galderak ere egin dira. Hala, lautik hiru (%74,8) kontsultaren alde agertu dira, eta %48,6k dio Euskal Estatuaren aldeko botoa emango lukeela.

**MAITE**

ESTETIKA ARETOA

*Negua eta gero,  
hau da momentu aproposena:  
eman argitasuna zure azalari!*

Zure azal motarentzat tratamendu egokiena aukeratuko dugu

Uistin Kalea z/g, Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45



# Herriko bizitzari eusteko aldarria

Aterpeak 25. urteurreneko ospakizunak aurkeztu ditu, emozioz beteriko ekitaldian. Ramon Ormazabal presidenteak historiari errepasoa eman dio, eta etorkizuneko erronkei buruz hitz egin du. Herriko eragileei eskerrak eta oroigarri bat eman dizkie

## Adrian Garcia

Atzera begiratzea ariketa ona da, norbera nondik etorri den ikusteko, eta, batez ere, nora joan nahi duen zehazteko. Horixe bera egin du Ramon Ormazabal Aterpeako presidenteak. Lasarte-Oriako merkataria eta ostalarien elkarteak 25 urte bete ditu, eta urtemugaren ospakizunen aurkezpena baliatu du herriko merkataritzaren azterketa egiteko. Hastapeneko garaiak gogorrak izan ziren, giro politiko gatazkatsu baten erdian. Gerora ere ez dute bide leuna izan. Urbil merkataritza zentroak kolpe gogorra eman zien dendari txikiak. Etorkizuna ere lausoa ikusten du. Herri ingurua saltoki handiez josi nahi dute. Hori aski ez, eta herrikuntza digitalek erosteko ohiturak errotik aldatu dituzte, bereziki gazteengan. "Interneteko salmenta desleiala da".

Gertaera berezia da mende laurdena betetzea. Horregatik, denbora darama Aterpeak mimoz eta xehetasunez ekitaldia prestatzen. Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Zuzendari Juan Andradesek lagundu du Ormazabal. Alfredo Retortillo Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua zen etortzekoa, baina azkenean "agenda arazoengatik" huts egin du. Udal ordezkariak ere gonbidatuta zeuden, baina udalbatzarra ordu berberean zuten, agertu direnak berandu egin dute.

1993. urtean eratu zuten Aterpea, baina dendarien elkartzeko mugimendua lehenagokoa da. 1970eko hamarkada bukaerako industria krisiak erne jarri zituen. Garai haietakoa da Michelingo 100 eguneko greba. Testuinguru

horretan itxi zituzten ATC, Bianchi eta Brunet. Ezinbestean salmenten beherakada sufritu zuten merkatariek, eta horri aurre egiteko batzeko lehen pausoak eman zituzten.

## 1986an, udalerrri propioa

Udalerrriaren sorrera gogora ekarri du Ormazabalek. Haren ustez, giltzarria izan zen 1986an udal propioa eratzea. "Data hori ez da kontutan hartzen, baina oso garrantzitsua izan zen. Kaleak, osasun zentroa, kiroldegia... ditugu horri esker".

Aterpearen estatutuak 1993. urtean onartu zituzten. Lehendik sortua zegoen dendari mugimendua, baina orduan hartu zuten legezko izaera. 50 bat establezimenduk osatu zuten elkarte lehenean. Hurrengo urtean 100 baino gehiago izatera iritsi ziren, ostalariak ere barnean hartu baitzituzten.

Aterpearen historian mugarriak izan diren gertaerak aipatu ditu Ormazabalek. 1998an Eusko Tren jarri zuten Donostiara; oro har, herriarentzako onuragarria izan arren, hiriburuko dendekiko lehia zuzena ekarri zuen. "Erronka berri bat izan zen guretzat, herrikideak hiriburura ihes egin ez zezaten. Donostiarrak erakartzea aukera are zailagoa zen".

Berezia izan zen 2000. urtea. Alde batetik, euroa ezarri zuten. "Jakin genuen aurrera egiten, berriz ere". Bestalde, urte horretan Urbil merkataritza gunea ezarri zuten. "Prestatu behar izan ginen. Kosta zitzaigun, baina lortu genuen, nahiz eta askok itxi behar izan".

2004. urtean herriko merkataritzaren azterketa egitea enkargatu zuen udalak,

berebizikoa sektorean erabaki estrategikoak hartzeko. "Ordura arte Aterpeak ez zuen diru laguntzarik jasotzen, udalean esaten zutelako irabazi asmoa genuela". Enpresa pribatuek osatzen dute Aterpea, baina herriko bizitza suspertzea dute helburuetako bat. Izan ere, Ormazabalek askotan esan du: "Dendarik gabeko herria hilik dago". Hortik dator urtemugako leloa: *25 urte herrigintzan zurekin*.

## Eskerrak herriko eragileei

Iraganari buruzko zertzeladak bai, baina etorkizuna marrazten ere saiatu da Ormazabal. Eta hartu dion itxura nahiko iluna da. Ez da harriztekoa; Michelin 2, Leroy Merlin, Belartza 2... Lasarte-Oriako ingurua hartuko dute merkataritza zentroek. Eusko Jaurlaritzako ordezkariaren presentzia aprobetxatu du eskaera bat egiteko: behingoz Lurraldeko Plan Sektoriala onartzea. Plan horrek mugak jartzen dizkie saltoki handiei, baina onartu artean lege hutsune moduko bat dago, eta gune horiek eraikitzen ari dira atsedenik gabe. "Lasterketa bat dirudi, ea zein udalerrik erakartzen dituen multinazional gehiago", salatu du Aterpeako presidenteak.

Eskerrak emateko baliatu du ekitaldia Aterpeak. Urteurreneko ekitaldien nondik norakoak eman ondoren, herriko eragileak deitu ditu, oroigarri bat emateko eskertza moduan; ferra bat, elkartearen ikurra. Tartean Ttakun Kultur Elkarteak eta TXINTXARRI ere jaso dute. "Kirol eta kultur ekintza gehien dituen Gipuzkoako herria da. Horrek ematen dio bizitzari".



Manuel Lekuonako hitzaldi aretoa bete zen aurkezpen ekitaldian. TXINTXARRI



Ramon Ormazabal, Juan Andrades Eusko Jaurlaritzako Merkataritza zuzendaria, eta Arantza Aldai Aterpeko teknikaria, aurkezpenaren. TXINTXARRI



Herriko eragileei oparitutako oroigarria. TXINTXARRI



Elkartearen historia argazkietan errepasatu zuten. TXINTXARRI





Aterpeako egungo zuzendaritza taldeko kideak. TXINTXARRI



Ormazabal, Jose Ramon San Sebastian lehen presidentarekin. TXINTXARRI

## Urtemuga ospakizunaren egitaraua

### Maiatzaren 14tik 18ra

- **19:00-21:00** Argazki erakusteka Antonio Mercero aretoan. Larunbat goizean ere irekiko dute.

### Maiatzaren 14tik 18ra

- **17:00-19:00** Marrazki erakusketa Aterpeako establezimenduetan.

### Maiatzak 17, osteguna

- **17:00-19:00** Landatu zeure landarea tailerra. Ormazabal Loradenda.
- **17:00-19:00** Apaindu zeure litxarrieriak tailerra. Dulce Tentacion
- **17:00-19:00** Haurrentzako puntuko tailerra. Merceria Olmi.
- **Egun osoan** Albiste onen eguna tailerra. Bus tabernan.

### Maiatzak 18, ostirala

- **17:30** Puzgarriak Urko plazan, Juan XXIII.a plazan, Zumaburu Eliza plazan. Euria egiten badu, Loidibarren frontoian. egingo dute.
- **17:00-19:00** Haur marrazkien lehiaketa. Ola Enmarcacion.
- **17:00-19:00** Apaindu zeure litxarrieriak tailerra. Dulce Tentacion.
- **17:00-19:00** Haurrentzako puntuko tailerra. Merceria Olmi.
- **Egun osoan** Albiste onen eguna tailerra. Bar-Cafeteria Bus.
- **17:00** Amaia Gonzalez Caballero. Jaizkibel plaza.
- **18:00** Jalgune. Elizatze plaza
- **18:00** Udal Musika Eskola. Iñigo Loyola.

- **19:00** Semblante Andaluz. Okendo plaza.
- **20:00** Zero Sette. Andapa plaza.
- **20:00** Erketz eta Suberri. Elizatze plaza.
- **Kalean zehar** Dinbi Banda Batukada.

### Maiatzak 19, larunbata

- **11:00-13:00** Ttirriki Tarraka, kaleetan zehar.
- **12:00** Kukuka. Okendon.
- **12:30** Xumela. Okendon.
- **13:00** Dantza Plaza. Okendon.
- **12:30** Barkakoa. Okendo plazan.
- **17:00-19:00** Txu-txu trenna herrian zehar. Geldialdia Okendo plazan.
- **21:00** Afaría eta orkestra egingo dute, Maialen Chourraut kiroldegian.



Aterpearen lehenengo zuzendaritza taldeko kideak. TXINTXARRI

## TXOKO ETA UDALEKUETARAKO BEGIRALE LAN-POLTSA

18 urte baino gehiago badituzu eta udaran begirale izan nahi baduzu, bidali edo ekarri zure **curriculum** eta **eskaera-orria\*** beteta Ttakunera maiatzaren 15a baino lehen.  
\*bulegoan eskuragarri

- Begirale titulua
- EGA edo baliokidea den agiria
- Sexu delitua egiteagatik aurrekari penalak ez dituzula egiaztatzen duen ziurtagiria



@TtakunKE



**UDACO**  
SUPERMERTATUA  
• Asteburuetan ere zabalik

Agaztiak, Mirapipoi eta Tirachard / Freepik

**Eskaintza!**  
7,50€

**Deitu eta enkargatu zure oilasko erre+ patatak!**

Oztaran plaza 1 • Lasarte-Oria  
626 02 69 25  
943 04 86 23





Gemma Urruzola Aterpeako 25. urteurreneko lanetan buru-belarri aritu da. TXINTXARRI

# "Baloratzen eta ikusten ez den lan asko egiten da dendan"

**GEMMA URRUZOLA ATERPEAKO LEHENENGO BATZORDEKO KIDEA**

Denda aspaldi itxi arren, gertutik jarraitu du Urruzolak herriko merkataritzaren bilakaera. Herrian kontsumitzeko kontzientziarioa falta delakoan dago

**Adrian Garcia**

Urgal arropa denda hemeretzi urtez gidatu du Gemma Urruzolak (Lasarte-Oria, 1967). 1973an ireki zuen haren amak, eta lekukoa hartu zion berak ondoren.

Aterpea merkatarien elkartearen sorreran parte hartu zuen, eta nahiz eta orain hamabi urte negozioa utzi, gertutik jarraitu du herriko merkataritzaren egoera. Aterpearen 25. urteurrena

prestatzeko batzordean ere aritu da.

**Aterpea merkatarien elkarteko lehenengo batzordean egon zinen orain dela 25 urte. Nola gogoratzen dituzu urte horiek?**

Garai horretan sekulako krisi industrialak izan genuen, eta eragin handia izan zuen ostalaritzan eta merkataritzan. Denda asko itxi beharrean aurkitu ziren. Garai liskartsuak izan ziren; greba askotara deitu zuten. Komertzioa ireki aurretik dendarien artean hitz egiten genuen, erabakitzeko guk ere itxi egin behar ote genuen. Egoera jasanezina zen. Salmentak asko jaitsi ziren, eta kezka handia zegoen gure artean. Horrek bultzatu gintuen zerbait egitera. Auzokoen artean bilera txikiak, elkarrizketa txikiak egiten genituen, baina zerbait orokorragoa behar genuen. Horrela sortu zen merkatarien elkarte.

**Azken urteetan jauzi handia egin du Aterpeak, eta bazkideak ia bikoiztu ditu. Horrek esan nahi al du dendarien arteko mesfidantza galdu dela? Izan ere, askotan lehiakide bezala ikusten dute elkar.** Orain kanpoan nago, baina iruditzen zait gauza askok berdin jarraitzen dutela. Arropa denda bati alboan beste bat irekitzen badiote, segituan asaldatuko da. Niri gertatu zitzaidan, baina ez da txarra; erne egotera behartzen

zaitu. Bestela, agian alfertzeko arriskua duzu. Pentsarazi egiten dizu. Esaterako, zer egin dezaket ondokoa baino gehiago saltzeko? Zer estilo du berak, eta niri zer falta zait? Piztu egiten zaitu lehiak, eta ona da. Bestalde, aukerak ere aprobetxatu daitezke. Erosketak elkarrekin egin daitezke, hornitzaileari merkeago ateratzeko... Gainera, gero eta denda gehiago inguruan, orduan eta jende gehiago erakartzen du. **Dendan jardun duzun urte horietan nolako tresna izan da Aterpea? Zertan lagundu dizu?**

Hasteko, formatzeko eta ikastaroak egiteko. Zure kabuz egin ditzakezu, baina Aterpeak laguntza handia ematen dizu. Bestalde, gainerako dendarekin harreman hobea edukitzeko; agian ezagutzen dituzu kalean ikustetik, baina tarteka afaritxo bat edo beste egiten genuen. Laguntzen du lehiakide modukoa ez, baizik eta lankideen arteko hartu-emana izateko. Kezkak konpartitzeko ere balio izan dit. Denok dugu berbera: salmentak ondo ez doazenean ona da hori partekatzea, eta denon artean konponbidea bilatzea. Babes handia eman dit.

**Egun ekitaldi mordoan antolatzen du urtero Aterpeak. Hasierako urteetan ere hala egiten zuen?**

Bai. Normalean beti bereber bultzatzen dute, eta batzuetan nekatu edo erre egiten zara. Zure negozioan duzun egoeraren arabera, agian pentsa dezake norbaitek ea zerbaitetarako balio duen. Kontua da dendaria mugitu egin behar dela; ezin du itxaroten geratu ea bezeroren bat sartuko ote zaion.

**Hasiera gogorak izan zenituzten Aterpean, baina gerora etorri dena ere ez da samurra; Urbil merkataritza zentroa eraiki zuten 2000. urtean.**

Kezka eta beldur handia ekarri zuen. Hasieran proposatu ziguten bertan komertzio bat irekitzeko, gurea utzi gabe. Ezinezkoa zitzaigun, hango alokairuak garestiegiak zirelako. Ez zen inor joan.

**Auzoetako denda asko itxi zituzten, baina hirigunean komertzioak eutsi dio.**

Bai, askok eutsi diote, baina kostata. Agian bikotekideak haren lanaren ostean denda lagunduta. Zaila da hortik bizimodua ateratzea.

**Zurea arropa denda izanik, nola eragiri zuen negozioan?**



Asteburuetan nabaritu nuen nik gehien, ostiral eta larunbatetan. Guk astelehenetik larunbat arratsaldera irekitzen genuen; ostiral arratsaldetik aurrera nabari zen hutsune handia. Gehienbat hasieran izan zen, gero pixkanaka bezeroak bueltatzen hasi ziren, ikusi zutenean tratua ez zela berbera.

**Tratu hori da, hain zuzen, dendari txikiak duten armarik eraginkorra, ezta?**

Niri aholku bila etortzen zitzaizkidan asko. "Aurreko urtean eraman nuen txaketa bat, hari ongi doakion alkandora ba al duzu?". "Ezkontza bat edo jaunartze bat daukat, zer jarri dezaket?" Pertsona eta haren bizimodua ezagutzen baduzu, berehala asmatzen duzu. Hori ez daukazu saltoki handi batean. **Buruz jakingo zenituen bezeroen neurriak eta gustuak.**

Bai, noski. Sei edo zazpi hilabete lehenago erosten genituen hurrengo denboraldirako arropak. Erostera joaten nintzenez, arropak aukeratzeko askotan pentsatzen nuen: "Jantzi hau gustatuko zaio bezero horri". Hain justu, erakuslehoan jarri, pertsona horrek ikusi, eta asko gustatzen zitzaioela esanda eraman egiten zuten.

**Oso erosoa da hori bezeroarentzako.** Opariak egiteko, askotan bikoteak edo lagunak deitzen zidan, "zerbait" prestatzeko. Nik banekien neurria zein zen, eta aurretik zer jantzi erosi zituen.

**"URBILEK MIN EMAN ZIGUN; TRATUA BERBERA EZ ZELA IKUSTEAN ITZULI ZIREN BEZEROAK"**

**"BESTE EGOERA ZAIL BATEN AURREAN DAGO MERKATARITZA TXIKIA; ETORKIZUNA ILUN IKUSTEN DUT"**

**"JENDEARI INPORTA ZAIONA DA MERKEAGO EROSTEA, HERRIARI KALTE EGIN ARREN"**

Opari papera jartzen nion, eta jantzia ikusi gabe eramaten zuten askotan. Nik esaten nien erositako alkandora horrekin edo bestearekin ongi zihoakiola. Hori da dendari txikiak dituzten armak, eta erabili egin behar dira.

**Herritarrek, oro har, baloratzen al dute gertutasun hori?**

Ez dakit. Baloratzen eta ikusten ez den lan asko egiten da denda txikietan. Ez dakit zenbaterainoko antzematen den hori.

**Herrian kontsumitzeko kontzientziarioa falta da?**

Bai, ikaragarri. Urte asko dira denda utzi nuela, baina ikusten dut oraindik.

**Saltoki handien aurrean, nola eusten zenituen zuk bezeroak?**

Berezia egin behar duzu denda. Aire freskagarri jakin bat erabiltzen nuen, bezeroak gogoratu zezan dendaren usaina sartzen zen bakoitzean. Salmentarako teknikak dira. Ikastaroetan esaten ziguten; dendak sartzeko gonbita egin, eta erakargarria izan behar da. Hau da, komertzioaren aurretik igarotzean zerbaitek arreta deitu behar dizu, behintzat erakuslehoan gerarazteko. Erakarpenean horretan lan egiten genuen. Agian ezer erosi gabe ateratzen zen bezeroa, baina behinik behin sartu da barrura. **Halere, saltoki handien hedapenak ez du etenik. Beste proiektu mordo martxan jarri dituzte Lasarte-Oria inguruan.**

Beste egoera zail baten aurrean dago merkataritza txikia. Kanpoan nago orain, baina asko enpatizatzen dut dendariekin. Barrenean dut hori oraindik. Kezkatuta nago; datorrena oso txarra da.

**Interneteko salmentek ere eragina izan dute negozioetan.**

Hori da beste arazoa. Gainera, gazteen joera asko aldatu da. Teknologia ekarri duen berrikuntzarekin hazi eta hezi dira. Sarean informatzen dira, eta zalantzarik gabe erosten dute Interneten. Nik beti erosi aurretik ikusi eta ukitu egin behar dut. Gero ere, edozer gauzatarako leku bat eduki behar dut. Esateko oso ongi etorri zaidala produktu hori, edo kexatzeko ere.

**Denda txikietan erosteak onura ekartzen dio herriari, jarduera ekonomikoa suspertzen baitu. Azalpena horren erraza izanda, zergatik jotzen dute askok kanpora?**

Ez dut uste jendeari hori gehiegi inporta zaionik. Gehien inporta zaiena da merkeago erostea, horrek herriko bizitzari kalte egin arren. Nire iritzia da: berekoiak dira.

**Zer iritzi duzu udalaren jarrerari buruz? Alde batetik Aterpea babesten du, diru laguntzak emanez. Baina bestetik, merkataritza zentroak egin ahal izateko baimenak ematen ditu.**

Jarrera kontraesankorra da, nire iritzi. Alde batetik, komertzioa bultzatzeko ekimenak

egiten ditu, herriari bizitasun pixka bat emateko. Baina bestetik, saltoki handiak erakartzen ditu. Kontraesan hutsa da.

**Aterpearen 25. urteurrenaren batzordean zaude ere. Nola sartu zintuzteten hor?**

Aterpeko lehen batzordean egon ginenak tarteka egiten dugu afaritxoaren bat, eta Ramon [Ormazabal, Aterpeko presidentea] hasi zen orain bizpahiru urte ideiak botatzen. Lantalde bat osatu zuten, eta

proposatu zidatenean baiezkoa eman nien.

**Denda askok utsi diete etorri zaizkien krisiei. Baina dendariet erretiroa hartzean zaila izango da norbaitek negozioarekin jarraitzea.**

Etorkizuna nahiko iluna ikusten dut. Nire semei ez nieke esango denda hartzeko, edo saiatzeko negozio txiki batekin. Nahiago dut ikasi, eta beste nonbait lana aurkitu dezaten. Ez dago inolako laguntzarik ezta ilusiorik hemen denda bat irekitzeko.

**KEINUTIK**

**puntura**

**UDABERRIKO BERTSO SAIOA**

Maiatzak 12, larunbata • 22:30

Manuel Lekuona Kultur Etxea • Lasarte-Oria

<b>BERTSOLARIAK</b>	<b>GAI JARTZAILEA</b>	<b>ANTZERKIA</b>	<b>SARRERAK</b>
Maiaten Lujanbio Andoni Egaña Ane Labaka	Uxue Loinaz	KUKUKA antzerki eta dantza eskola  Bea Egizabal  Ane Huizi, Mailu Arruti, Miren Egizabal  Intza Alkain	5,50€ 10 sarrerako bonoa 45€



# Zaleen animoen bila, Lauko Finalera iristeko

Urrats bat gehiago besterik ez denboraldiko helburua betetzeko. Lauko Finalera sailkatzetik 40 minutura dago Ostadar SKT. Oiarsoekin ari dira indarrak neurtzen final-laurdenetan; joaneko partidaren nagusi izan dira herritarrak, 46-76 irabazita

## Iñigo Gonzalez

Lauko Finalera iristetik 40 minutura dago Ostadar Saskibaloiko senior taldea. Hamar minutuko lau denbora baino ez, denboraldi hasieratik finkatuta daukaten helburua betetzeko. Momentuz, final-laurdenak ari dira jokatzeko herritarrak, Errenteriako Oiarsoaren aurka. Joaneko partidaren urdin-beltzak nagusitu dira, hasi eta buka: 46-76 irabazi dute. "Denboraldiko neurketa onena izan da", nabarmendu du Ander Otaegi entrenatzaileak.

Alde polita ekarri dute bueltan Lasarte-Oriara, baina itzuliko neurketa jokatu behar dute oraindik. Igandean neurtuko dituzte indarrak berriro bi taldeek, Maialen Chourraut kiroldegiko kantxan, 11:00etatik aurrera. Taldeko kideek herritarrak animatu dituzte harmailetara joatera, Ostadar animatzera. Denboraldi bikaina egiten ari da senior



Lauko Finala hatz puntekin ukitzen dute Ostadar Saskibaloiko seniorrek. OSTADAR

mailako taldea, eta biribiltzea besterik ez zaie falta. Zaleekin batera egin nahi dute Lauko Finalera sailkatzeko bigarren urratsa.

Joan den asteburuan Oiarsoaren aurka sekulako partida jokatu

zuten. Joko bizkorra, erritmo handikoa, baloia alde batetik bestera azkar mugitzen... Horren seinale, libre eta markarik gabe egindako jaurtiketa guztiak; zortzi hiruko sartu zituzten denera, eta bi puntuko beste hainbat

Aurreneko segundotik atera da Ostadar SKT neurketaren bila. Junior taldeko hainbat kide deitu, eta hamabi jokalarieraman ditu Otaegik Errenteriara. Nabaritu dute, alor fisikoan batez ere: "Oiarso bederatzi jokalarieraberririk ez zituen, eta fisikoki nabaritu da aldea; bigarren zatian, batik bat".

## Egurrean, 40 minutuz

Ordurako, dena den, nahiko bideratuta zegoen neurketa. Atsedena hartzera joan zirenean, 18-36ko emaitza islatzen zuen markagailuak. Lehenengo laurdena 11-19 itxi zuten herritarrek, eta bigarrenean handitu egin zuten. Dinamika horri eutsi zioten, partida bukatu arte: azkenean, 47-76. Abantaila ederra etziko norgehiagoka jokatzeko.

Kirola ederra da, hainbat gauza eta faktorerengatik; besteak beste, batzuetan gertatzen diren ezustekoengatik. Oiarso ez dauka batere erronka makala igande honetan: saiatuko da 30 puntuko alde horri buelta ematen. Kirolean, eta, saskibaloian bereziki, ikusi dira hori baino balentria handiagoak, baina Ostadarrek oso gaizki jokatu beharko luke Lauko Finalera ez sailkatzeko. Gainera, zaleen indarra ere edukiko du alde.

Abuztuan ekin zioten sasoiari. Aurrendenboraldiko lehenengo entrenamendu gogor eta neketsu horietan, lehenengo izerdiak

bota ostean, helburua finkatu zuten: senior mailako ligako kanporaketetara sailkatzea aurrena, eta, behin fase horretan egonda, Lauko Finalera iristea. Ez dute lortu oraindik, baina oso gutxi falta zaie.

Sailkapena lortuko balute, datorren asteburuan jokatuko lukete azken fase horretako aurreneko norgehiagoka, maiatzaren 19an, larunbaterekin. Irabaziz gero, final handia hurrengo egunean izango litzateke (maiatzaren 20an, igandearrekin). "Lauko Finalera iristearrekin asko poztuko ginateke, baina behin hor egonda, edozer gauza pasa daiteke", esan du Otaegik. Lauko Finala irabazten duen taldeak Espainiako Bigarren Mailan aritzeko txartela lortuko du.

Talde gaztea da Ander Otaegi eta Beñat Eleizegik entrenatzen dutena, baina kalitate eta gaitasun fisiko handikoa. Erritmo biziko partidak planteatzen dituzte, saskiratze askokoak. Erakargarriak zaleentzat. Saskibaloiko partida bizia ikusi nahi duenak hitzordu polita du igande goizean.

## ITZULIKO PARTIDA ETZI JOKATUKO DUTE, MAIALEN CHOURRAUT KIROLDEGIAN, 11:00ETATIK AURRERA

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

<b>FUTBOLA</b>
<b>ERREGIONALEN IGOERA FASEA</b>
<b>Hondarrabia - Ostadar SKT</b> Larunbata. 16:30. Hondartza, Hondarribian.
<b>ERREGIONAL PREFERENTE A</b>
<b>Ostadar SKT - Trintxerpe</b> Larunbata. 17:30. Michelinen.
<b>JUBENIL 1. MAILA, IGOERA FASEA</b>
<b>Ostadar SKT - Santo Tomas Lizeoa</b> Larunbata. 15:30. Michelinen.
<b>KADETE 1. MAILA, IGOERA FASEA</b>
<b>Ostadar SKT - Kostkas</b> Larunbata. 12:00. Michelinen.
<b>INFANTIL TXIKI ERRENDIMENDUA</b>
<b>Ostadar SKT - Danena</b> Larunbata. 10:00 Michelinen.
<b>2. URTEKO ALEBIN ESKOLA</b>
<b>Euskalduna - Ostadar SKT</b> Igandea. 12:15. Ubitarte, Andoainen.
<b>ARETO-FUTBOLA</b>
<b>HERRIKO TXAPELKETA</b>
<b>Asador Irigoien - Patricio Cocktail Bar</b> Larunbata. 09:30. Michelingo kirolgunean.

<b>Avenida Taberna - Insausti Kattagorri</b> Larunbata. 10:30. Michelingo kirolgunean.
<b>Buenetxea taberna - Izen gabe</b> Larunbata. 11:30. Michelingo kirolgunean.
<b>Txoko Taberna Autocares LuisCar - Viña del Mar</b> Larunbata. 12:30. Michelingo kirolgunean.
<b>3. NAZIONAL MAILA</b>
<b>Eguzki Antonio Aroztegia - Afantxo</b> Larunbata. 17:30. Kiroldegian.
<b>GIPUZKOAKO 1. MAILA</b>
<b>ISU Leihoak Eguzki - Anoeta</b> Ostirala. 20:50. Kiroldegian.
<b>GIPUZKOAKO 2. MAILA</b>
<b>Ostisko Sindikato taberna - Cecilia Frutadenda Eguzki</b> Ostirala. 21:30. Beraungo frontoia, Errenterian.
<b>JUBENILAK</b>
<b>SUMMA Aldapeta B - Bar Lasarte Eguzki</b> Larunbata. 12:15. Donostia.
<b>KADETEAK</b>
<b>Mondrate - Balerdi Harategia</b> Larunbata. 13:30. Iturripe, Arrasaten.

<b>SASKIBALOA</b>
<b>SENIOR 1. MAILA LIGAKO KANPORAKETA</b>
<b>Ostadar SKT - Oiarso</b> Igandea. 11:00. Kiroldegian
<b>JUNIOR ERRENDIMENDUA LIGAKO FINALERDIK</b>
<b>Carnicas San Marcial Hondarribia - Ostadar SKT</b> Larunbata. 19:45. Hondartza, Hondarribian.
<b>KADETE PARTIZIPAZIOA</b>
<b>Ostadar SKT - Zast 2002 ZKE</b> Igandea. 09:30. Kiroldegian
<b>INFANTIL HAUNDI</b>
<b>Ostadar SKT - Internacional Haundi</b> Larunbata. 09:30. Kiroldegian.
<b>INFANTIL TXIKI</b>
<b>Ostadar SKT - Antigua Luberri Txiki</b> Larunbata. 11:15. Kiroldegian
<b>IGERIKETA</b>
<b>BENJAMINAK</b>
<b>Hainbat benjamin Gipuzkoako Txapelketa Eskolarrak Igerilari Osoa proban izango dira lehian.</b>

<b>IGandea. 10:00 eta 16:30. Azpeitiako Udala Kiroldegian.</b>
<b>PILOTA</b>
<b>PROFESIONALA, ESKUZ BINAKA</b>
<b>Arteaga II.ak eta Imaz - Laso eta Larunbe</b> Larunbata. 17:00. Labrit, Iruñean.
<b>4 T'ERDIKO TXAPELKETA</b>
<b>Zapirain - Artetxe</b> Larunbata. 10:30. Errenterian.
<b>Urbieta - Solano</b> Larunbata. 12:15. Villabonan.
<b>INFANTILAK</b>
<b>Intza 1 - Gure Txeru</b> Ostirala. 19:30. Michelinen.
<b>TXIRRINDULARITZA</b>
<b>BIDASOAKO ITZULIA</b>
<b>Iñigo Altuna (Caja Rural) Bidasoako Itzulian parte hartzen ari da.</b> Ostirala eta larunbata. Arratsaldea. Orion/Iruñean.
<b>GAZTETXOAK TORNEOA</b>
<b>Kadete mailako txirrindulariek Gaztetxoak torneoa lehiatuko dute.</b> Igandea. 15:00 eta 17:00. Abadiñon.

<b>ZANGOTZAKO HIRIA SARIA</b>
<b>Jubenil mailako txirrindulariek Euskal Herria torneoko Zangotzako Hiria sarian parte hartuko dute.</b> Igandea. 10:30. Zangotza, Nafarroan.
<b>TRIATLOIA</b>
<b>IRUÑEAKO HALF TRIATHLOIA</b>
<b>Trinko taldeko kideak Iruñeako Half Triathloian parte hartuko dute.</b> Larunbata. 14:00. Alloz urtegia/Iruñean.
<b>ERRUGBIA</b>
<b>EUROPAKO 7 TXAPELKETA</b>
<b>Hernani Errugbi taldeko Joan Ander Puertasek Europako 7 txapelketa jokatu du.</b> Larunbata eta igandea. San Petersburgo, Errusian.
<b>GIMNASTIKA</b>
<b>GIPUZKOAKO TXAPELKETA, ESKOLARTEKO B MAILA</b>
<b>LOKEko Alexia Barquin eta Aitana Molano alebinek Eskolarteko B mailako Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute. Esku hutsik eta uztaiarekin egingo dute lan.</b> Igandea. Goiza. Azpeitian.





Babyauto Zarautz-Beltzak RT-k Sant Cugat de Vallesen jokatu du Espainiako txapelketa. ZRT

## Espainiako zazpigarren egin du Beltzak taldeak

Babayauto Zarautz-Beltzak taldeko 18 urtez azpiko jokalariek Sant Cugat de Vallesen jokatu dute Espainiako txapelketa. Euskal Ligako txapelkun izan ostean, amaiera polita eman diote denboraldiari lasarteoriarrek: zazpigarren tokian sailkatu dira

### Txintxarri

Sant Cugat del Vallesen (Katalunia) izan dira Zarautz-Beltzak RTko 18 urtez azpiko jokalaria. Espainiako txapelketan lehiatu dira errugbilariak, eta sailkapeneko zazpigarren postuan amaitu dute.

Lau partida jokatu dituzte larunbatean eta igandean. Larunbateko lehen, Sanboianaren aurka aritu dira. Kataluniako taldea izan da nagusi jokoan; horrela adierazi du markagailuak, eta bi taldeek maila pareko jokoa eman arren, baloia kontrolpean edukitzea lortu dute beltzek. Horrek markagailua berdintzeko balio izan die bigarren zatian, baina

Zarautz-Beltzak-en akatsa baliatuta, entsegu bat egitea lortu du Sanboianak. 10-17 amaitu dute lehia.

Lehen partida "zapora garratzarekin" amaituta, Ciencias Sevilla taldea izan dute aurkari bigarrenen. Antonio Vega Beltzak taldeko zuzendaritzako kidearen arabera, hasiera "ezinhobea" eman dio taldeak jokoari. Zigor kolpe bat eta entsegu bat transformatu, eta baloiaren jabetza mantendu dute. Sevillako taldeak, berriz, partidari buelta eman, eta nagusi izan dira bigarren zatian. 10-19ko puntuaketarekin amaitu da lehia.

Harmailtako giroa goraiatu du Vegak. Zarautz eta Lasarte-

Oriako zaleak bildu dira Sant Cugat del Vallesen, eta "sekulako giroa" sortu dute txapelketak iraun bitartean.

### Igandea

Talde gogorra izan dute beltzek aurkari igandean: Cisneros. Hauek oso joko ona egin dute hasieratik, eta alor guztietan nagusi izan dira (35-0).


Hiru lehiak amaituta, sailkapen postua borrokatu dute. Valladolideko El Salvador taldearekin batera, zazpigarren eta zortzigarren postuak borrokatu dituzte. Beltzek 13-0 irabazita, zazpigarren postuan amaitu dute Espainiako 18 urtez azpiko txapelketa.

## Iruñeako Half Triathloian arituko da Trinko Triatloi taldea

Allozko urtegitik irten eta Iruñea erdialdera arteko ibilbidea osatu beharko dute triatletek, larunbatean

### Txintxarri

Espainiako distantzia ertaineko triatloi txapelketa egingo da larunbatean, Iruñean. Bertan lehiatuko dira Lasarte-Oriako Trinko Triatloi taldeko lau kide. Norgehiagoka gogorra izango dute aurretik; bi kilometro igerian, 85 bizikletaz eta 20 korrika egin beharko dituzte. Eguraldi ona iragarri duten arren, haizea izango da eta bizikletako froga zaildu dezake horrek. Igandean Sempereko triatloia jokatu zuten Iñigo Ibarburuk eta Guillermo Trombottik.



Iñigo Ibarburu. IÑIGO IBARBURU



BURUNTZAPI TXIRRINDULARITZA ESKOLAX

## Carbayeda, garaile Zarautzen

Kadete mailako txirrindulari lasarteoriarrek XXVIII. Zarautz saria jokatu dute larunbatean. Beñat Carbayeda izan da garailea, eta harekin batera, Jaime Romerok ere lasterketa ona egin du. Halere, erorikoa izan du Romerok, eta minik hartu ez duen arren, lehen postuek alde egin diote. Asier Pozo, berriz, Palafrugellen aritu da Euskal Selektzioarekin, Miguel Ramirez oroimen lasterketan.



**Pirritx, Porrotx eta Marimotots**

**Maiatzak 18**

**OSTIRALA**

**7€**

**17:30 URNIETA**

Egape ikastolako jolastoki estalia

**Sarrerak salgai:**

**LASARTE-ORIA**

- Ttaku kultur elkarte.

**URNIETA**

- Bikain okindegia. San Juan plaza.
- Xauxar Taberna. Idiazabal kalea.

**AIURRI**







# Mailari eutsi dio Eguzki Antonio Aroztegiak

Areto-futboleko talde gehienek denboraldiko azken jardunaldia jokatu dute asteburuan. Ia denek mailari eutsi diote, Cecilia Frutadenda Eguzkik izan ezik; Gipuzkoako Ligako Hirugarren Mailara jaitsiko da. Trumoi Taberna Eguzki, berriz, finalerako bidetik at geratu da

## Txintxarri

Lasarte-Oriak areto-futboleko maila nazionalen talde bat izango du, beste urte batez: Eguzki Antonio Aroztegia.

Liga amaitzeko bi jardunaldi jokatzeko falta badira ere, matematikoki mailari eutsio dio Lasarte-Oriako taldeak. 24 puntu ditu egun, eta 12. postuan dago. 15 talde daude lehian. Sailkapeneko azken bi taldeek 13 puntu dituzte soilik.

Puntuak adierazten duten moduan, Kalu Erice eta Edu Menak zuzendutako taldeak ez du denboraldi ona jokatu. 26 partidatik 18 galdu ditu, baina irabazitako sei partidaren puntuak nahikoak izan dira nazional mailan jarraitzeko.

"Denboraldi zaila izan da, baina pozik gaude, hurrengo urtean ere Lasarte-Oriak hirugarren mailan talde bat izango duelako. Gainera, Eguzki areto-futbol taldearen proiekturako oso garrantzitsua da nazional mailan taldea izatea," azaldu dute areto-futbol taldeko arduradunek.

Eguzki ekimeneko beste taldeei dagokionez, jardunaldi baten faltan, gehienek maila mantendu dute.

Trumoi Taberna Eguzki taldea Gipuzkoako Lehenengo Mailan izango da. Azpimarratzekoa da



Eguzki Antonio Aroztegia taldeak maila mantendu du. TXINTXARRI

Ligako finalerako kanporaketak jokatu dituela asteburu honetan. Idiazabal BaiReformas taldea izan dute aurrez aurre, eta lasarteoriatarrek ezin izan dute ezer egin. 12-0 galdu dute, eta txapelketatik kanpo geratu dira.

Gipuzkoako Lehenengo Mailan lehiatuko da hurrengo denboraldian ere ISU Leihoak Eguzki. Izan ere, 29 punturekin sailkapeneko erdialdean salbu dira Eneko Molinaren mutilak.

Bar Lasarte taldeko jubenilek eta Balerdi Harategia kadeteek taularen azken postuetan egon arren, 11. postuan eta azken

postuan daude, hurrenez hurren, mailari eutsiko diote.

Gipuzkoako Bigarren Mailako Cecilia Frutadenda Eguzki taldeak, ordea, hurrengo denboraldian hirugarren mailan jardungo du. Ez du denboraldi ona izan. Jokatu diren 25 partidetatik bakarria irabazi, eta hiru berdindu ditu. Azken sailkatua da, eta beraz, mailaz jaitsiko da.

Areto-futboleko taldeek, beraz, haien etorkizuna argi dute, eta azken jardunaldi honetan lasai izango dira. Horrek ez du esan nahi lehian guztia emango ez dutenik.



Mundaroren aurka garaipena erdietsi zuen Ostadarrek orain bi aste. TXINTXARRI

## Erregional Preferentea, salbatzeko lehian

Promoioa jokatzeko dute salbatzeko modu bakarra. Asteburu honetan dute sailkatzeko azken aukera

### Txintxarri

Ostadar SKTko Erregional Preferente taldeak asteburuko partidaren helburu bakarra du, promoziorako sailkatzea. Sailkapeneko azken hirugarren postuan da talde urdin-beltza, eta postuari eutsi behar dio. Jaitsiera oso gertu du; hurrengo taldea Sanpedrotarrak puntu

bakarrera dago, eta sailkapeneko azken bi taldeak zuzenean maila galduko dute.

Promozioko partida jokatzeko, asteburu honetako hiru puntuak erabakiorrak izango dira. Horregatik, helburua lortzeko, Trintxerperen aurkako partidaren garaipena erdietsi beharko du Lasarte-Oriako taldeak.

## Solano eta Artetxe, aurrera lau t'erdiko txapelketan

Nahiz eta lau t'erdiko txapelketako ligaxkako azken jardunaldia ez den jokatu oraindik, Intzako Solano eta Artetxek txapelketako finalerako bidea jokatu dute maiatzaren 26tik aurrera.

Aritz Solanok lau partida irabazi ditu, eta bere taldeko sailpeneko buru da Behar Zanako Urbietarekin berdindua. Biek aurrera egingo dute txapelketan.

Baina taldeko lehenengo zein den erabakiko behar da. Larunbata honetan bien arteko norgehiagoka jokatu dute. Lehia interesgarria izango da.

Jon Pello Artetxeren kasuan, sailkapena eskuan du, bere taldeko lehen postuan baitago, hiru partida irabazita. Asteburu honetan EPLEko Zapirain izango du aurrez aurre.

Hurrengo astean indarrak osatu ostean, maiatzaren 26an hasiko dute finalerako bidea, kanporaketa sistema bidez.

## Bikain azken jardunaldian

Kirol Zehaztasun Ligako eta alebin Ligako azken jardunaldiak lehiatu dira asteburuan, Hernaniko kiroldegian. Buruntzaldea IKTIko txikiak bertan izan dira, eta batzuk lehen postuetan sailkatu dira. Ez dute denboraldia amaitu ordea, benjaminen Eskola mailako Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute igandean, Azpeitian. Alebinetako batzuk berriz, Euskadiko Kirol Jokoetan izango dira hemendik bi astera.



BURUNTZALDEA IKTI

## Santa Ana Pala txapelketako izena ematea ireki da

Lasarte-Oriako Kirolen Udala Zerbitzuak 37. Santa Ana pala txapelketa antolatuko du. Lasarte-Oriatik bizi diren 16 urtez gorako emakumeek eta gizonezkoek parte hartu ahal dute. Aurten talde bakoitzean kideetako bat Lasarte-Oriatik kanpo helbideratua izatea onartuko da. Izena ematea Maialen Chourraut kiroldegian egin behar da, maiatzaren 29a arte. Doakoa da.

## Udako eskaintza aurkeztu du Kirol Zerbitzuak

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak uztailera eskaintza aurkeztu du: heldu eta gazteentzako spinning, jumping, zumba, body pump + zumba eta igeriketa ikastaroak; hurrei zuzendutako ur-jarduerak, igeriketa ikastaroak eta *Bai, udan blai!* kirol udalekuak. Izena ematea ekainaren 1ean irekiko da, udalekuen kasuan izan ezik. Inskripzioa dagoeneko martxan dago.



## ZORION AGURRAK



**Unax**  
Zorionak aita, ama,  
Udane eta familia  
guztiaren partetik.



**Lur**  
Lur, pottokita! Zorionak  
zure 8. urtebetetzean!  
Ondo ondo ospatu. Asko  
maite zaitugu. Lasarteko  
familia guztiaren partez.



**Ekain**  
Ekain pottokito! Ondo  
ondo pasa zure lenengo  
urtebetetzean! Asko  
maite zaitugu! Familia  
guztiaren partez.



**Aiora**  
Zorionak GURE ETXEKO  
PRINTZESARI!!! azkenean  
iritsi da zure urtebetetzea,  
txokolatezko 11 muxu,  
famili guztiaren partetik.



**Elene**  
Zorionak bihotza! Ondo  
pasa zure 8.  
urtebetetzean. Ikaragarri  
maite zaitugu.



**Eneko**  
Zorionak Txapeldun!!!  
H a m a r g a r r e n  
urtebetetzea ederki  
ospatuko dugu... Muxu  
erraldoia.

## GUTUNAK

## 'Bestaldekoen' seinalerik ez

## IÑAKI LOPEZ DE LUZURIAGA

Komunikabideak noraino heltzen diren, kultura batek ere bertaraino luzatzen ditu erroak. Komunikabideez ari garela, 'hedabideez' ere hitz egiten dugu, lurretik zein airetik. Bada, Lasarte lotune ona da dudarik gabe, komunikabideen aldetik. Orain, ordea, pixka bat gutxiago izango da. Seinale bat galdu dugu.

1864an Espainiako kulturaren sustraiak Bidasoaraino luzatu ziren burdinbidearen bitartez, Gipuzkoan zehar bere bidea urratu ondoren, eta are, burdinbideak muga mardul bat ezarri zuen Txingudin itsasoratzen den ibaian. Hori argi geratzeko, Espainiak neurri zabaleko burdinbidea ezarri zuen (1.668 mm), ohiko europar 1.435 mm-kotik bereiziz: trafikoa osoa tratatuta geratzen zen Bidasoan. Ordu arteko mugaz bi aldeetako herritarren komunikazio isuri naturala hautsi egin zen, eta burdinbidea jarri trukean, Bidasoan eteten zena.

Halarik ere, topo tren txikiak zubi-lana egin zuen nolabait ere, Bestaldearekin komunikazio bat irekiz, nola eta Hendaiaraino burdinbidea eginez eta 1998tik aurrera Lasarteraino ekarriz. Aurrerabide horrek kultura espazio freskagarri bat ireki zigun ipar-ekialdera eta kontinentera begira, Bidasoaz haraindi. Zorteko gara nolabait topoak Lasarte Hendaiaraino eta urrutia izan zuten den espazio horren partaide egin gaituelako. Komunikazioa, baina, airetik ere etortzen da. Ingelese, broadcast deitzen diote hedabideen jardunari, jatorriz "haziak sakabanatuz ereitea". Guri Radio Pirenaicaren seinale, hazia heltzen zitzaigun gerra garaian

eta ostean Pirinioaz bestaldetik, bai, aspaldi dela.

Egun, ez dugu Radio Pirenaicaren beharrik (fingers crossed), baina aurrerabideak kontrako ondorio asaldagarria ekarri du: harriduraz ohartu nintzen (beste norbait ohartuko ote zen...) digitalizazioaren harira iraugitzen ari zela orain arte gure telebistetara heltzen zen seinale frantsesa, gero eta gehiago, eta duela hiru hilabete eman zaio azkena. Arte kanala kendu zuten, TV5 Monde eta beste kanal 'kaskarinago' batzuk ere bai. Azkenean, batere gabe geratu.

Jaizkibelgo errepikagailuan beste teknologia digital bat jarri dutela eta, seinalerik gabe geratu gara. Hori nola konpondu, bada? Bizilagun komunitatean aparatu berezi bat jarri bide behar da. Zumaburur, beste hainbeste portaletan bezala, berriz, gastuz zamatuta gaude, gutxi dira prest beharrezko 400-600 euroak pagatzeko, 14 euro bizilagun ate bakoitzeko. Legez, eskubidea omen dugu (baina Catalá etorriko ote da frantses seinalea jartzera...? Susmoa dut ezetz). Norbaitek esango du telebista besterik ez dela, Internet hor dagoela. Bai, pagatzen ez zena eta lehenetsita zetorrena. Heziketarako eta aniztasunerako tresna bat galdu dugu orain. Paradoxikoa ere bada: digitalizazioaren aroan, sendotu egin da 1864ko burdinbidearen mugaren paradigma, desagertu egin da Pirinioez bestaldearekin genuen kultura espazio komun bat, aukerakoa bai, baina guztion eskueran. Gehiengoari, baina, bost axola. Tira, irauin beza topoak!

## OHARRAK

## Galardi-Mendiluze sendiaren eskertza

Jose Ramon Galardiren heriotza dela eta bere familiak bihotzez eskertu nahi ditu jasotako dolumin eta elkartasun adierazpen guztiak. Besarkada bat Galardi-Mendiluze sendiaren partetik.

## Miracampos zalditegian gaztetxoentzat saioa

Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak, Miracampos zalditegian, *Zaldien mundu zoragarria ezagutzeko aukera*, saio berezia antolatu du. 2006-2009 urte artean jaiotako neskei eta mutilen zuzendutako ekintza da. Hitzordua maiatzaren 19an, larunbata, arratsaldeko 16:30ean da, Miracampos zalditegian. Jarduera doan izango da udal kirol instalazioen bazkideentzat.

Izena emate epea martxan da, Maialen Chourraut kiroldegian. Plaza kopurua mugatua denez izen-emate zerrenda errespetatuko da.

## Aterpea 25. urteurreneko afaria

Aterpea Merkatarik elkartek 25. urteurrena du aurten. Ospakizunen artean, maiatzaren 19an, afaria antolatu du Maialen Chourraut kiroldegian. Ostean, dantzaldia izango da, Ibai Berriak taldeak girotua.

Tiketak 40 euro balio ditu eta maiatzaren 12ra arte izango dira salgai elkarteko dendetan.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 11 GANDARIAS-URIBE  
Larunbata, 12 DE MIGUEL  
Igandea, 13 DE MIGUEL  
Astelehena, 14 ORUE  
Astearte, 15 DE MIGUEL  
Asteazkena, 16 LASA  
Osteguna, 17 GIL

**EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

## GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu:  
Urbietea kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

## Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera ([www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com)).

## TELEFONOAK

## UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUNOA KULTUR ETXEA: 9  
43 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTERI AEK: 943 372 863

## LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINITZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## Irakurle txokoko errifaren sariduna

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak urtero legez, errifa egin du. Zenbaki sariduna 348 da. Altzoa Amorotoko nekazal turismoan 5 pertsonentzako egonaldia irabazi du zorteko zenbakiak.

## Zubietako Udako Txokoak

Zubietako Guraso Elkarteak udarako haur txokoak antolatuko ditu Zubietan, 2 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako.

Txokoetan parte hartzeko, uztailaren 27ra arte aurretiko izen emate epea zabalik dago. Interesatuak [zubietatxoko@gmail.com](mailto:zubietatxoko@gmail.com) helbidera idatzi edo 649659786 telefonora dei dezakete.

## Galizia eta Portugalera bidaia

Biyak Bat elkarteak bidaia antolatu du Galizia eta Portugalera iparraldera, maiatzaren 27tik ekainaren 5ra. Elkarteko bazkideek 530 euro ordaindu behar dituzte; bazkideak ez direnek, berriz, 580 euro. Izena emate elkarteko bulegoan egin behar da astelehenetik ostiralera 10:30etik 12:30era.



**ESKELAK JARTZEKO: 943 37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioan

- ▶ Hileta egunean eskela Txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean: 80€

**Txintxarri: doan eta euskaraz**  
**Lasarte-Oriako etxe guztietan**

# Eskelak Txintxarrin

## 90 euro

### AZOKA TXIKIA

#### ETXEBIZITZA

##### ALOKAIRUAN EMAN

Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649 526 766.

Txaleta alokatzen dut Huelvan ekainean, uztailen eta irailean. Punta Umbriatik oso gertu, hondartza parean eta erabat ekipatua dago. 943 376 115.

#### LANA

##### ESKAINITZA

Etxe lanak egiteko emakume bat behar dut goizetan, Zubietan. 695 783 202.

##### ESKAERA

Pertsona edadetuak zaintzeko lan bila nabil. Garbitzeko, asteburuan lan egiteko edo orduka aritzeko prest nago. Telefonoa: 677 768 682.

Eskarmentudun pertsona lan bila dabil. Orduka,

astegunean edo asteburuetan, garbiketa lanetarako, edo haurrak eta helduak zaintzeko. Telefonoa: 637 160 734.

Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko prest. Aste barruan edo asteburuetan lan egingo nuke. 628 27 24 16

Adineko pertsonak zaintzeko eskaintzen dut neure burua. Ospitaleetan, etxean, gauez edo externa moduan lan egiteko prest. Profesionaltasun agiria dut, eta 10 urteko eskarmentua. Telefonoa: 671 763 558.

Jostun lanak egingo nituzke. Adineko pertsonak ere zaintzeko prest. Esperientzia handia. 688 62 36 50

Garbiketa lanak edota adineko pertsonen zaintzeko nituzke.

Esperientziaduna. 631 70 29 61

Pertsona adinduak zaintzeko nituzke asteburuetan, jai egunetan edo ospitaleetan gauean. 606 661 048/943 404 015.

#### BESTELAKOAK

##### HEZKUNTZA

Frantseseko, ingeleseko eta latineko klaseak emango nituzke, baita eskola laguntzakoak ere. Ekonomikoa. 600 766 068

### JAIOTAKOAK

**Lier Agirretxe Ciria.** Maiatzaren 4an.


### HILDAKOAK

**Fernando Gómez Benítez.** Maiatzaren 7an.

**M<sup>a</sup> Isabel Urdampilleta Santa Cruz.** Maiatzaren 6an.

**María Urriza Villanueva.** Maiatzaren 4an.

### MANTTANGORRI HIRIBUSA



### Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

#### PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
publizitatea@ttakun.eus

#### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia



# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



**LASARTE-ORIA Aterpea 50. urteurrena.** Aterpea merkatarik elkartek bere 50. urteurrenako ospakizunak eramango ditu aurrera aste honetan: erakusketa, Udaberri festa eta afaria. Aurtengo Udaberri festan haur eta helduentzako tailer, ekintzak eta emanaldiak izango dira. Lasarte-Oria, astelehena 14tik larunbata 19ra



## LASARTE-ORIA Keinutik puntura.

Antzerkia abiapuntu izanik, Udaberriko bertso saioa egingo da. Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Ane Labaka bertsolariek Uxue Loinazen gaiei erantzungo diete. Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideak, Bea Egizabal, Ane Huizi, Mailu Arruti eta Miren Egizabal eta Intza Alkain oholztan izango dira. Manuel Lekuona, 22:30ean

## OSTIRALA 11

**LASARTE-ORIA Errezitaldi kulturala**  
Sarek herriko preso politikoen eskubideen aldeko errezitaldi kulturala antolatu du. Musika, dantza, kanta, bertsoak... denetarik izango da. Okendo plaza, 19:00etan.

### ANDOAIN Dantza

Kukai Dantza taldeak *Oskara* ikuskizuna eskainiko du. Hainbat sari eskuratu ditu lan onak: 2017ko MAX sarietan dantza ikuskizun onenari, dantza talde onenari eta jantzi diseinu onenari; 2016ko Katalunyako Kritikaren saria eta Huescako antzerki eta dantza ferian dantza ikuskizun onena saria. Sarrera, 12 euro. Bastero kultur gunea, 21:30ean.

## LARUNBATA 12

### LASARTE-ORIA Ikastaroa

*Bestelako ekonomia elkarbizitza eredu berrirako* ikastaroa eskainiko da. Gizarte-ekonomian aski ezagunak diren asmo eta esperientziak alderatuko dira. Isaias Hernando (Komunioko Ekonomia) Joxe Mari Larramendi (Mondragon Korporazioko kide ohia); Joannes Roso (TZBZ kooperatibako partaidea); Miguel Angel Laspiur eta Jose Luis Madinabeitia (ALE elkarteko zuzendaritzakoak). Carlos Etxeberri kazetariak zuzenduko du ekitaldia. Elkarbizik BaMP taldearekin batera antolatu du. Villa Mirentxu, 11:00etan.

### LASARTE-ORIA Bertso saioa

*Keinutik puntura* Udaberriko bertso

saio berezia izango da. Sarrera, 5, 50 euro.

Manuel Lekuona, 22:30ean.

## IGANDEA 13

### USURBIL Baserritarren eguna

Baserritarren eguna ospatuko dute: 10:15ean, 46. Pilota txapelketa frontoian.

11:00etan, Baserriko produktuen azoka, Dema plazan.

11:30ean, Baserritarren omenezko hamaiketakoa.

13:00etan, Buruhandi eta Erraldoien konpartsa.

14:00etan, Herri Bazkaria bertsolariekin frontoian. Txartelak salgai: Alkartasuna, Artzabal eta Bordatxo. Helduak: 20 euro; Haurrak: 10 euro.

16:00etan, Sebastian Lizaso eta Ane Labaka bertsolariak.

18:00etan, Herri Kiroiak.

Usurbil, egun osoa.

### HERNANI Dastaketa gastronomikoa

Kultura anitzeko dastaketa gastronomikoa egingo da. Amher elkartek antolatua. Plaza Berri, 12:00etan.

## ASTELEHENA 14

### LASARTE-ORIA Aurkezpena

Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak eta Lasarte-Oriako alkate Jesus Zaballosek Gipuzkoarron Kultura Politikoa, 2017 ikerketaren aurkezpena egingo dute eta Gipuzkoak kalitatezko Kultura Politiko Demokratikoa garatzeko iradokizunak, iritziak eta

hausnarketak jasoko dituzte. Manuel Lekuona, 18:00etan.

### LASARTE-ORIA Bilera

Hitzartuk bilera bat egingo du Gune Irekiaren balorazioak jasotzeko. Manuel Lekuona, 18:00etan.

### LASARTE-ORIA Aterpea erakusketa

Aterpea Merkatarik elkartek mende laurden honetan egin dituen ekintzen argazki erakusketaz gozatu ahalgo dute herritarrek.

Antonio Mercero Aretoa. Astelehenetik ostiralera, 19:00tik 21:00etara. Larunbata, 11:00etatik 13:00etara.

### USURBIL Hitzaldia

Eduarne Gantxegi ELIKA Nekazaritzako Elikagaien Seguritasunerako Euskal Fundazioko kideak elikadura osasuntsuari buruzko hitzaldia eskainiko du. Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkartek antolatua. Zubietako Kaxkape, 15:00etan

## ASTEARTEA 15

### ASTIGARRAGA San Isidro eguna

San Isidro eguna ospatuko dute, Goldea herri kirol elkartek antolatua:

09:30ean, Xapre trikitilariak.

10:00etan, Prozesioa, meza eta ondoren hamaiketakoa Gure Izarra elkartean.

12:30ean, Idi demak.

Goizean, Astigarragako Lizardi baserriko produktuen eta animalia txikien erakusketa eta Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariak. Foru plaza, goiz osoa.

## ZINEMA

### USURBIL

#### URBIL

#### Sherlock

#### Gnomes

Ostirala: 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00.  
Larunbata: 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:00.  
Larunbata: 16:00, 17:00, 18:00, 19:00.

#### Mi familia del norte

Ostirala: 15:45, 17:40, 20:00.  
Larunbata: 15:45, 17:40, 20:00.  
Igandea: 15:45, 17:40, 20:00.

### Vengadores:

#### Infinity War

Ostirala: 15:50, 18:00, 18:50, 21:20, 21:55, 23:15 (3D), 00:15.  
Larunbata: 15:50, 18:00, 18:50, 21:20, 21:55, 00:15.  
Igandea: 15:50, 18:00, 18:50, 21:20, 21:55.

#### Verdad o reto

Ostirala: 16:20, 18:30, 20:40, 22:45, 00:55.  
Larunbata: 16:20, 18:30, 20:40, 22:45, 00:55.  
Igandea: 16:20, 18:30, 20:40, 22:45.

### #Sexpact

Ostirala: 21:00, 00:00, 00:15.  
Larunbata: 00:00.  
Igandea: 21:00.  
Campeones  
Ostirala: 16:30, 19:15, 22:10, 00:45.  
Larunbata: 16:30, 19:15, 22:10, 00:45.  
Igandea: 16:30, 19:15, 22:10, 00:45.

#### Noche de juegos

Ostirala: 22:20.  
Larunbata: 22:20.  
Igandea: 20:00, 22:20.

#### Peter Rabbit

Ostirala: 17:00.  
Larunbata: 17:00.  
Igandea: 17:00.

### Un Lugar Tranquilo

Ostirala: 15:45, 19:00, 22:10, 00:30.  
Larunbata: 19:00, 22:10, 00:30.  
Igandea: 19:00, 22:10.

#### 12 valientes

Ostirala: 21:30.  
Igandea: 21:30.  
El Principe encantador  
Larunbata: 15:45.  
Igandea: 15:45.  
Eurovision 2018  
Larunbata: 21:00.

## OSTEGUNA 17

### LASARTE-ORIA Udaltop jardunaldiak

Udaltop jardunaldiak hamargarrenez egingo dira. Aurtengoan, Euskara zerbitzuetako teknikariek Euskaraldian eman beharreko pausoei buruz hausnartuko dute. Manuel Lekuona, 9:00etatik 17:00etara.

### LASARTE-ORIA Tailerra

*Eskuratu zure argindarra kontsumoaren datuak eta murriztu zure kontsumoa!* tailerra eskainiko da. Gipuzkoako Foru Aldundiko *Gipuzkoa Argitu* programako ekintza da. Maiatzaren 15a baino lehen izena ematea behar da. Manuel Lekuona, 18:00etan.

### LASARTE-ORIA Udaberri festa

Aterpea Merkatarik elkartek bere 25. urteurrenako ekintzekin jarraituz, Udaberri festa antolatu du:

11:00etatik 13:00etara, *Bidaia/esperientzia paregabe eta erabat berrien aurkezpena*, Noaua Bidaiak.

17:00etatik 19:00etara, *Landatu zure landarea* tailerra, Ormazabal loradenda

17:00etatik 19:00etara, *Apaindu zure libxarrieriak* tailerra, Dulce Tentación denda.

17:00etatik 20:00etara, haur eta helduei zuzendutako puntu tailerra, Olmi mertzeria.

Egun osoan zehar, *Albiste onen eguna* tailerra. Albiste originalenak saria izango du. Bus Kafetegia. Aterpeko dendak, egun osoa.



